

ARIKETAK

1 DATA ETA ORDUAK IDAZTEKO KOMERIAK

Aukeratu erantzun zuzena. Baina, kontuz, batzuetan, erantzun zuzen bat baino gehiago daude!

- a) Lauaxeta 1.905ean jaio zen.
b) Lauaxeta 1905ean jaio zen.
- a) Mila bederatziehun eta bosgarren urtean jaio zen Lauaxeta.
b) 1.905garren urtean jaio zen Lauaxeta.
c) 1905garren urtean jaio zen Lauaxeta.
d) 1905. urtean jaio zen Lauaxeta.
- a) Bilera astelehen batean egin genuen, uztailaren 5ean.
b) Bilera Astelehen batean egin genuen, Uztailaren 5ean.
- a) Maiatzan deialdia egingo dugu. Ekainan, berriz, azterketa.
b) Maiatzean deialdia egingo dugu. Ekainean, berriz, azterketa.
- a) Vitoria-Gasteiz, 1999ko abenduaren 28
b) Vitoria-Gasteiz, 1999ko abenduaren 28a
c) Vitoria-Gasteizen, 1999ko abenduaren 28an
d) Vitoria-Gasteiz, 1999ko abenduak 28
e) Vitoria-Gasteizen, 1999ko abenduak 28an
- a) Izena emateko epea ekainak 28tik uztailak 8ra dago zabalik.
b) Izena emateko epea ekainaren 28tik uztailaren 8ra dago zabalik.
- a) Ordubiak dira.
b) Ordu biak dira.
- a) Hiruretan sartu nintzen ohera eta seiretan esnatu.
b) Hiruretan sartu nintzen ohera eta seiretan esnatu.
c) Hiruretan sartu nintzen ohera eta seieta esnatu.
d) Hiruretan sartu nintzen ohera eta seieta esnatu.
- a) Autobusa ez da zazpiak arte irteten.
b) Autobusa ez da zazpirak arte irteten.
- a) Sei eta erdietan heltzen naiz etxera egunero.
b) Sei t'erdietan heltzen naiz etxera egunero.
- a) Zortziak hogeit gutxitan sartzen naiz lanera.
b) Zortziak hogeit gutxiagotan sartzen naiz lanera.
- a) Bulegoa 09:00tik 14:00ra dago zabalik.
b) Bulegoa 09:00etatik 14:00etara dago zabalik.
- a) Lanera 07:40etan heldu eta 17:30etan irteten naiz.
b) Lanera 07:40an heldu eta 17:30etan irteten naiz.
c) Lanera 07:40an heldu eta 17:30ean irteten naiz.
- a) Hala ere, gehienak 17:15ean irteten dira.
b) Hala ere, gehienak 17:15etan irteten dira.
- a) Bostak eta hamabostetan irteten dira gehienak.
b) Bostak eta laurdenetan irteten dira.
c) Bostak eta hamabostean irteten dira.
d) Bostak eta laurdenean irteten dira.
e) Bost eta laurdenetan irteten dira.
f) Bost eta laurdenean irteten dira.

2 HIZTEGI BATUA

Ariketa hauetarako, Euskaltzaindia apurka-apurka kaleratzen ari den Hiztegi Batua hartu dugu oinarri. Ondorengo ariketen bidez, hainbat hitzek euskara batuan zein idazkera duten argituko duzu. Baina, kontuz, batzuetan, erantzun zuzen bat baino gehiago daude!

Oharra: batzuetan ikusiko duzunez, Euskaltzaindiak erantzun bat hobesten du, nahiz eta beste erantzun zuzenak Hiztegi Batutik kanpo utzi ez.

1. a) Hauteskundeen ondorioz aldatu egin da Legebiltzarraren **osakera**.
b) Hauteskundeen ondorioz aldatu egin da Legebiltzarraren **osaera**.
2. a) Datorren asteartean **ospatuko** dugu bilera.
b) Datorren asteartean **egingo** dugu bilera.
3. a) Sendatu arte **hospitalean** eduki beharko dute.
b) Sendatu arte **ospitalean** eduki beharko dute.
c) Sendatu arte **ospitalan** eduki beharko dute.
4. a) Jantokira berandu bazoaz, ez duzu **ogitartekorik** izango.
b) Jantokira berandu bazoaz, ez duzu **otartekorik** izango.
5. a) Kafe makinak, txanponak jan eta kaferik eman ez: ez badute konpontzen **sabotajea** egingo diogu.
b) Kafe makinak, txanponak jan eta kaferik eman ez: ez badute konpontzen **sabotaia** egingo diogu.
6. a) Udazkenean, **paisaje** ederra ikusten da Altuben.
b) Udazkenean, **paisaia** ederra ikusten da Altuben.
7. a) Nik amore eman arte ez dit **bakerik** emango.
b) Nik amore eman arte ez dit **pakerik** emango.
8. a) Administrazioa sartzeko **oposaketak** egingo omen dituzte; baina auskalo noiz.
b) Administrazioa sartzeko **oposizioak** egingo omen dituzte, baina auskalo noiz.
9. a) Aita, **panpin** horiek eskatu nahi dizkiot Olentzarori!
b) Aita, **panpina** horiek eskatu nahi dizkiot Olentzarori!
10. a) Mahaia txukundu barik ez duzu **paperarik** aurkituko.
b) Mahaia txukundu barik ez duzu **paperik** aurkituko.
11. a) Lasterketan opari bana emango diete **parte-hartzaile** guztiei.
b) Lasterketan opari bana emango diete **parte hartzaile** guztiei.
c) Lasterketan opari bana emango diete **partehartzaile** guztiei.
12. a) Zertara zoaz futbol zelaira? Gaur ez dago **partidurik** eta.
b) Zertara zoaz futbol zelaira? Gaur ez dago **partidarik** eta.
13. a) Gaizki esanak **barkatu**, ondo eginak kontuan hartu.
b) Gaizki esanak **parkatu**, ondo eginak kontuan hartu.
14. a) Guraso batzuek haurrei euskaraz egiteko esaten diete, baina haien artean, erdaraz **parra-parra**.
b) Guraso batzuek haurrei euskaraz egiteko esaten diete, baina haien artean, erdaraz **barra-barra**.
15. a) Idazkia ondo eginda dago, amaierako **parrafoa** izan ezik.
b) Idazkia ondo eginda dago, amaierako **paragrafoa** izan ezik.
16. a) Atzoko bilkuran **parlamentari** guztiak izan ziren Legebiltzarrean.
b) Atzoko bilkuran **parlamentario** guztiak izan ziren Legebiltzarrean.
17. a) Erre nahi baduzu, **pasillora** irten.
b) Erre nahi baduzu, **korridorera** irten.
18. a) Autobideko **ordain-tokian** ez digute pasatzen utzi, elurra dela eta.
b) Autobideko **peajea** ez digute pasatzen utzi, elurra dela eta.
c) Autobideko **ordaintokian** ez digute pasatzen utzi, elurra dela eta.

A R I K E T A K

19. a) Askotan utzi diot erretzeari, baina behin eta berriz erortzen naiz **bekatuan**.
b) Askotan utzi diot erretzeari, baina behin eta berriz erortzen naiz **pekatuan**.
20. a) **Pelota** biziak aukeratu dituzte **pelotariak**.
b) **Pilota** biziak aukeratu dituzte **pilotariak**.
21. a) Igo **persiana**, ez da ezer ikusten eta!
b) Igo **sareta**, ez da ezer ikusten eta!
22. a) Zer zabilta hatza sudurrean, **petrolio** bila ala?
b) Zer zabilta hatza sudurrean, **petroleo** bila ala?
23. a) Rubinstein **piano-jole** aparta zen.
b) Rubinstein **piano-jotzaile** aparta zen.
24. a) **Piszinara** jausi zen, baina dzanga barik, danga egin zuen: urik ez zegoen eta!
b) **Igerilekura** jausi zen, baina dzanga barik, danga egin zuen: urik ez zegoen eta!
c) **Igeritokira** jausi zen, baina dzanga barik, danga egin zuen: urik ez zegoen eta!
25. a) Non salda, han zopak: atera **plater** sakonak!
b) Non salda, han zopak: atera **platera** sakonak!
26. a) Agintari politiko bati konfiantza berresteko edo kentzeko herritarrek egiten duten bozketari **plebiszito** deritza.
b) Agintari politiko bati konfiantza berresteko edo kentzeko herritarrek egiten duten bozketari **plebiszitu** deritza.
27. a) Proposamen bat onartzeko edo arbuiatzeko herritarrek egiten duten bozketari **referendum** deritza.
b) Proposamen bat onartzeko edo arbuiatzeko herritarrek egiten duten bozketari **erreferendum** deritza.
28. a) Hauteskundeen ondoren hasten da **portzentajeen** dantza.
b) Hauteskundeen ondoren hasten da **portzentaien** dantza.
c) Hauteskundeen ondoren hasten da **ehuneko**en dantza.
29. a) Basoan ibiltzean, kontuz ibili **poxpoluekin**.
b) Basoan ibiltzean, kontuz ibili **pospoloekin**.
30. a) Kleopatra suge batek **pozoituta** hil zen.
b) Kleopatra suge batek **pozoinduta** hil omen zen.
31. a) Gustura jango nituzke arrautza **frijitu** horiek!
b) Gustura jango nituzke arrautza **prejitu** horiek!
32. a) **Prentsaurrean** azaldu behar omen du kargua zergatik utzi duen.
b) **Prentsaurrekoan** azaldu behar omen du kargua zergatik utzi duen.
33. a) Lurrean **puztarriak** barreiatu zituen eta atzetik zetozenek irrist egin zuen.
b) Lurrean **puxtarrak** barreiatu zituen eta atzetik zetozenek irrist egin zuen.
34. a) Autobidean hainbat **erradar** jarri dituzte eta, antza, gufxiagotu egin omen dira istripuak.
b) Autobidean hainbat **radar** jarri dituzte eta, antza, gufxiagotu egin omen dira istripuak.
35. a) **Sailordetzak** eratuko du nazioarteko biltzarra.
b) **Sailburuordetzak** eratuko du nazioarteko biltzarra.

SOLUZIOAK

1 DATA ETA ORDUAK IDAZTEKO KOMERIAK

1. b
2. a, d
3. a
4. b
5. b, c
6. b
7. b
8. c
9. a
10. a
11. biak
12. b
13. c
14. a
15. b, c, e

2 HIZTEGI BATUA

- | | | |
|-------------------------|-------------------------|-------|
| 1. b | 15. b | 29. b |
| 2. b | 16. a | 30. a |
| 3. b | 17. a Heg., b hobetsita | 31. a |
| 4. a | 18. a | 32. b |
| 5. a | 19. a | 33. b |
| 6. b | 20. b | 34. b |
| 7. a | 21. a Heg., b hobetsita | 35. b |
| 8. b | 22. a | |
| 9. b | 23. b | |
| 10. b | 24. b | |
| 11. a, b | 25. a | |
| 12. a Heg., b hobetsita | 26. b | |
| 13. a | 27. a | |
| 14. b | 28. a; c hobetsita | |

